

Giza eskubideak urratzen diren lekuetan bizitzea arriskutsua izaten da, eta are arriskutsuagoa haien defentsan jardutea. Afrika gatazka askoren agertokia izaki, urraketa horietarako baldintza asko ditu. Gerraren, gosearen eta gaixotasunen biktimak milaka zenbatzen dira. Baina badira egoera hori aldatzeko lan handia egiten dutenak, giza eskubideen defendatzaileak, hain zuzen. Nork babesten ditu, baina, eskubideen defendatzaileak?

Afrikako defendatzaileen lana ezinbestekoa da; hala ere, bai haiek, bai haien erakundeek mehatxuak eta jazarpena jasaten dituzte, haien bizia etengabeko arriskuan dela.

«Egoera horren aurrean, funtsezkoa da Afrikako kontinentean dauden errealtate anitzei erantzuten dieten babes estrategia eta mekanismoak buruzko gure ezagutza sendotzea, bai eta euskal gizarteak aktibista hauen babes integrala bermatzen nola lagun dezakeen hausnartzea ere». Horixe izan zen eLankidetza-Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentziak hil honen 6an eta 7an Gasteizko Europa Jauregian egin zituen jardunaldien xedea, bi egunez Afrikako giza eskubideen defendatzaileekin eta erakundeekin erronka nagusien inguruan eztabaidatzeko eta haien babeserako estrategiak partekatzeko aukera emanda. Halaber, aldaketarako eragile gisa duten zilegitasuna aitortzeko eta haien beharrak hobeto islatuko dituzten politikak antolatzeko baliagarriak izan zitezen antolatu zituzten jardunaldiok,



BABESLEAK BABESTUZ

Giza eskubideen defendatzaile afrikarren erronkak ezagutuz eta babesa pentsatuz

 **GIZA ESKUBIDEAK** / Xabier IZAGA

Bi egunez, Afrikako zenbait giza eskubideen defendatzaile beren borrokak eta esperientziak partekatzeko gune bat eskaini zien duela bi aste eta erdi eLankidetzak Gasteizen. Haien erronkak ikusarazteko eta irtenbide zehatzak emateko, babesteko, eta aldaketarako eragile gisa haien legimititatea handitzeko gune ere izan zen.

baita EAEren eta Afrikaren arteko lankidetza eta elkartasun eragileen arteko lotura sendotzeko asmoz ere.

Afrikako hainbat herrialde-tako giza eskubideen defendatzaileek parte hartu zuten topaketan. Izan ziren eztabaidetan, Afrikako defendatzaileek dituzten erronka nagusien testuingurua jorratu

zuten: balio sozial ultrakontserbadoreen inposaketatik gatazka armatuetaraino, baliabide naturalen ustiapen arduragabea eta giza eskubideen emakumezko defendatzaileek eta sexu orientazioa eta genero identitate aniztasuna defendatzen dituztenek aurre egin behar izaten dieten arrisku handiagoak.

Eskualde mailako, nazio mailako eta herri mailako babes-mekanismoak ere aztertu zituzten, haien eraginkortasuna baloratzeko eta hobetzeko arloak identifikatzeko.

MAHAI INGURUA

«Banaka edo beste pertsona batzuekin batera giza eskubideak sustatzeko eta babesteko neurriak hartzen dituzten pertsonak deskribatzeko erabiltzen da 'giza eskubideen defendatzaile' terminoa. [...] zer egiten duten eta zer testuingurutan lan egiten duten deskribatzea da terminoa azaltzeko modurik onena», dio eLankidetzak, eta horren inguruan aritu ziren William Amanzuru, Ugandako Friends of Zoka erakundearen koordinatzailea eta ingurumenaren eskubideen defendatzailea; Caddy Adzuba, Kongoko Errepublika Demokratikoko abokatu, kazetari eta emakumeen, haurren eta prentsa askatasunaren aldeko eskubideen defendatzailea; eta Aminatou Haidar, Mendebaldeko Saharako giza eskubideen defendatzailea "Giza eskubideen defendatzaileen autopertzepzioa, legezko izaera eta zilegitasuna" mahai inguruan.

«Ez nion bidaia honi giza eskubideen defendatzaile gisa ekin, herritar gisa baizik», esan zuen Amanzuruk, eta eskubide horiek ez direla agintariek ematen duten zerbait, errespetatu behar den zerbait baizik; beraz, «ez dira eztabaidatu behar agintariek eman dituzten, baina bai uler dezaten gobernantza aukeretzarako, demokraziarako eta zuzenbide estatutarako hartzen diren erabakien artean giza eskubideak bermatu behar direla».

Caddy Adzubak esan zuenez, giza eskubideen defendatzaile

"Giza eskubideen defendatzaileen autopertzepzioa, legezko izaera eta zilegitasuna" mahai inguruko irudi bat.
Jaizki FONTANEDA | FOKU

learen zeregina zoragarria eta oso zaila da. «Hori bizi egin behar da, grina sentitu, DNAn eraman». Bera ez zen jardun horretan sartu hala nahi zuelako, «beharrez sartu nintzen».

Kongoko Errepublika Demokratikoan meatze baliabide asko daude eta pertsonen bizia- ren eta materialen artean aukeratu behar dela dio. «Gela honetan denok erabiltzen dugun telefonoa egiteko, kongoa- rrak hil behar dira, ibilgailu ba- teriak egiteko eta adimen artifiziala izateko, berdin. Ez dut zerikusirik bilakaera tek- nologikoarekin. Zergatik sakri- fikatu behar dut nire bizia nor- baitek arazo hori izan dezan? Zertarako? Orduan, galdera ho- riek guztiak eraman ninduten borroka honetan parte hartze- ra. Ulertu egin nahi nuen».

Aminatu Haidar ere bere he- rriko egoerak eraman zuen gi- za eskubideen aldeko jardune- ra: «Nire konpromiso aberkoia zela eta, era guztietako anker- keriak jasan nituen okupazio agintari marokoarren aldetik. 20 urterekin inteligentzia zer- bitzu sekretuek bahitu nindu- ten, eta lau urte eman nituen haien zaintzapean». Askatu zutenean, «aire zabaleko espe- txe handi batean preso» aurki- tu zuen bere burua, Marokok kontrolatuta eta jazarrita. Egoera horretan bizi izan dira sahararrak lurralde okupa- tuan; «beraz, giza eskubideen aldeko ekintzaile bihurtu gara urteetan zehar. Horrela ezagu- tzen gaitu gure jendeak, giza eskubideen aldeko aktibista gi- sa. Marokorentzat traidoreak gara, etsaiak gara. Baina gure jendea harro dago gutaz. Eta urteetan zehar, nazioartean gi- za eskubideen defendatzaile gisa ezagunak bihurtu gara».

Adzubak ere kontatu zuen nola gobernuak etsaitzat har-

tzen dituzten: «Gure gober- nuari esaten diogunean zein den gerraren egoera, Kongoko armadak egiten duena, etsai bihurtzen gara». Eta, dioenez, errebeldeentzat, giza eskubi- deen defendatzaileek ez dute bizitzeko eskubiderik. Eta emakumezko defendatzaileen egoera are larriagoa azpima- rratu zuen: «Bitan gara bikti- ma: giza eskubideen defenda- tzaile gisa eta emakume gisa».

LEGEDIAK ETA JENDARTEA

Ugandako legeek LGBT komu- nitateko kideak ez dituzte gi- zakitzat hartzen, Amanzuruk esan zuenez. «Jarrera penala da ez direla gizakiak, bizitza- ren salbuespen bat bizi dutela- ko». Hala, ikuspegi zabalago baten beharra jarri zuen mahai gainean: «LGBT komu- nitateko pertsonak jaio ziren; orduan, jaiotzeagatik, beren jaiotza eskubideagatik, erres-

«Giza eskubideen aldeko ekintzaile bihurtu gara urteetan zehar. Horrela ezagutzen gaitu gure jendeak, giza eskubideen aldeko aktibista gisa. Marokorentzat traidoreak gara, etsaiak»

«Bakean bizi nahi dut, baina etxea uztera behartuta nago, basoak oinez gurutzatzera, errefuxiatu bihurtzeko. Eta Europara etortzen naizenean asilo eske, ukatu egiten didate»

peta ditzakegu?». Jaiotza esku- bideen aldeko aldarri horrek legegileei eta botere judizialari bidalitako mezu bat zeraman: «Ez dut zuen gizaki definizio- rik behar».

Giza eskubideen defenda- tzaileen lana legezkoa da, eta ordezkatzan duten jendarte zi- bilak legitimatzen du lan hori. Bigarren horretan bat etorri ziren hirurak. «Legitimitatea dugu, komunitatearen babesa dugulako», esan zuen Adzu-

bak. Hala ere, giza eskubideen defendatzaileak babesteko le- geak indarrean egon arren, «aplikazioa oso mugatua da, eta bereziki gatazka guneetan, ez dago halakorik. Giza eskubi- deen defendatzaile bati erraz leporatuko zaio Estatuaren se- gurtasunaren aurkako atenta- tua, eta delitu hori heriotzare- kin zigortzen da».

Sahararen kasuan, «gaur egun, dozenaka giza eskubi- deen defendatzaile ditugu Ma- rokoko espetxeetan», kontatu zuen Haidarrek.

Adzubak gaztetatik bizi izan duen esperientziatik, ihesla- riak ekarri zituen gogora: «Ni- re bizitza bakean bizi nahi dut, baina etxea uztera behartuta nago, basoak oinez gurutza- tzera, errefuxiatu bihurtzeko. Eta Europara etortzen naize- nean asilo eske, ukatu egiten didate. Baina zergatik bota- tzen naute nire etxetik?».

William Amanzuru, Caddy Adzuba eta Aminatou Haidar, mahai inguruan.
Jaizki FONTANEDA | FOKU

